

# Aretxagazeta

Internet: [www.saretxo.es/aretxagazeta](http://www.saretxo.es/aretxagazeta)  
e-mail: [aretxagazeta@saretxo.es](mailto:aretxagazeta@saretxo.es)

Aretxabaleta • 1999ko urtarrilak 14 • 159. zka.



ATXABALTELEBISTA

## Badator telebista

Urtarrila bukaeran hasiko dira lehen emisioak

Iturririk iturri: Iñaki Sarasua ■ Iritzia: Miren Arenaza ■ Kirolak: Fito Etxeberria

# HEZIBIDIE

ren  
aldeko jokoa  
errenta segurua




**SAN VIATOR  
IKASTOLA**



**Umezaintza**  
HAIR-ESKOLA



**SAN FRANTZISKO XABIER  
IKASTOLA**



**ALMEN  
IKASTOLA**



**HEZIBIDE**  
HEZKUNTZA TALDEA

## BILERA INFORMATIBOAK:

- **Lehen Mailako Hezkuntza (L.M.H.):**

San Frantzisko Xabier: 99-1-28  
Almen: 99-II-2  
San Viator: 99-II-9  
Umezaintza: 99-II-11

- **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (D.B.H.):**

San Frantzisko Xabier: 99-II-3  
Almen: 99-II-4  
San Viator: 99-II-10

## ARRASATEKO BULEGOA:

Biteri Etorbidea, 15 behea  
Tel: 943 79 88 75  
20500 ARRASATE  
GIPUZKOA



**HEZIBIDE**  
HEZKUNTZA TALDEA



# Zelan ikusten duzu pezetaren desagerpena eta euroaren agerpena?

**Alicia Cortes**  
(Langilea)

Ez dakit zer aldaketa ekariko digun, baina ez dut uste oso positiboa izango denik.


Pezetatik eurotara pasatzea kostatzen zaigula iruditzen zait.



**Fidel Iturbe**  
(Langilea)

Bai ekonomia arlorako bai Europa mailan mugitzeko aldaketa positiboa izango da.

Pezetatik eurotara aldaketa berez etorriko dela uste dut, arazo handiegi barik.



**Mari Luz Rus**  
(Langilea)

Hasieran kostatuko zaigu, baina aldaketara berez moldatuko garela pentsatu behar.


Pezetaren desagerpenak ez dit penarik ematen eta aldaketara zabalik egon behar garela uste dut.



**Jose Antonio Zanguitu**  
(Langilea)

Ekonomia arlorako ona izan arren, jendearentzat ez dut uste aldaketa positiboa izango denik.

Berriz zentimoetara bueltatzea atzera pausua dela iruditzen zait, jendea nahastuta ibiliko da eta.



eskutitza




*Azuzena Cardenalek lagundu dien guztiei eskerrak eman nahi dizkie.*

## Gabonetako kanpaina

Aretxabaletako Amnistiaren aldeko komiteak gabonetako kanpaina parte hartu duten dendari eta enpresei eskerrak eman nahi dizkie, baita kanpaina lan egin duen jende guztiari ere.

Honekin batera Euskal Presoak Euskal Herriratu arte lanean jarraitu beharra dagoela eta enkartelada eta egiten diren deialdi desberdinetan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu.

## Aretxabaletako Amnistiaren aldeko komitea



*KARTZELA BATEAN EZ DA ETORTZEN  
HARRIPETATIK KENENA  
GAUR HORREGATIK ZUENGANAKO  
EGIN NAHI DUKE OHEA  
BAINA BADAAT HAU GUTXI DENEZ  
INOLAZ EZIN LEIKENA  
DIRUZ ORDAINDU LINE LATZEAN  
ESKAINI DIDAZUENA.*

*Mila esker AXU*



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Aretxagazeta aldizkaria. **Argitaratzailea:** Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tfnoa: 943-79 86 21 Faxa: 943 79 54 11. **Erredakzio-kontseilua:** Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Gurutze Larrinaga, Koldo Zubizarreta, Aitor Iruere, Gotzone Arrese, Gorka Etxabe. **Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:** Mirari Altube eta Iratxe Bengoa **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia Berezibar, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Banatzalea:** Janete Bragado. **Inprimategia:** Eguzkigraf, Koop. Elk. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. ISSN: 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



# G a b o n e i



**Alberto Etxeberria**  
Maketa egilea

- Nola joan dira maketa eta argazki erakusketa?

- Oso ondo. Herritar asko pasatu da bertatik eta asko harrিতa geratu da maketarekin. Udaletxeak erakusketa beste aste betez luzatzeko eskatu digu.

- Zer da jendeari gehien gustatu zaiona?

- Orokorrean dena. Batzuk argazkiekin geratu dira beste batzuk maketari begira pasa dute denbora. Mendizaleei esaterako maketaren mendi aldeak eman zien atenzioa.

- Zenbat jende pasatu da?

- Ez dakigu baina asko, adin guztietakoak gainera. Baserritarrek interes handia erakutsi dute eta gaizki jarritako hainbat gauza zuzendu dizkigute.

- Pozik egindakoaz?

- Bai, lan handia izan da, baina merezi izan du. Udaletxeak gainera gorde egingo du maketa Galartzan seguruasko eta eskolek erabili ahal izango dute. Argazkiak, berriz, artxiboan geratuko dira.



Abenduaren 24an izan zen udaletxe zaharrean kokatutako lan leku berrien **inaugurazioa**. Udaletxe eta elkarte ezberdinetako kideek **Loramendi E.E.**, **Saretxo**, **Atxabalta telebista** eta **Aretxagazetako** lokal berriak ikusi ahal izan zituzten. Arratsaldean, berriz, herritar guztiei ireki zitzaizkien ateak eta ikusmin handiena telebistak sortu zuela aipatu behar. Hemendik aurrera badakizue non aurki gaitzakezuen, herritarren zerbitzura baikaude bertan lan egingo dugun guztiok.



**Argazki eta maketa erakusketa** atzeratu egin bazen ere, pena merezi izan zuen itzaroteak. Egindako lanak bere fruituak jaso ditu: atxabaltarron harri-dura eta mi-resmena.



Zenbaki

Basabe  
Industrialdea C Pab.  
**Aretxabaleta**  
Tfnoak: 943 71 21 12  
943 71 22 68

**Aholkularitza**

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE**  
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA  
Otalora kalea  
Eliza aurrealdean  
Tfnoa: 943 77 13 57

**AMETS**  
**TABERNA**

Iparragirre, 4  
Tfnoa: 943 79 01 29  
**Aretxabaleta**

# errerasua



**Olentzero**, atxabaltar hauren eskutitzak jaso eta goxokiak banatu ostean, plazan Ortzadarrek antolatutako jaiotzera hurbildu zen. Bertan umeek gabon kantak abestu zizkieten.



**Kepa Errasti**

Ortzadarreko arduraduna

**- Zein ekintzetan parte hartu du Ortzadarrek?**

- Abenduaren 24an baserriz baserri kantuan joan ginen. Olentzero, Bizarzuri eta Errege kabalgatan ere egon gara, baina garrantzitsuena Poxpolin park-aren antolaketa izan da.

**- Nola joan da Poxpolin park-a?**

- Gu oso gustora gaude egindako lanaz, umeeak ere gustora ikusi baititugu. Dena dela akatsak ere egon dira eta datorren urterako zuzentzen saiatuko gara.

**- Zein ekintza egon dira bertan?**

- Koltxoizko ohe eta jolasak eta guk antolatutako hainbat tailer maskarak, malabarrak, txapak... egiteko.

**- Hurrengo urterako animatuta?**

- Aurtengo Gabonak lehenengoak izan dira eta lan haundia izan dugu, agobiatuta ere ibili gara, baina orokorrean pozik gaude eta hurrengo urtean ere hemen izango gara.



Aurtengoa lehenengo **Poxpolin park**-a izan bada ere, izandako arrakasta ikusita datorren urtean ere izango dute umeek bertan jolasteko aukera. Eskerrik beroenak antolatzen eta laguntzen ibili ziren guztiei.



## LASAGABASTER-en

### AUKERARIK ONENA

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE TFNOAK.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Urtero bezala Gabonetan **eskaparate lehiaketa** ospatu zen. Aurten parte hartzaile gutxiago izan badira ere, txukun apaindu duenik ere izan da. Lehenengo saria Iriarte jantzi dendak jaso zuen, bigarrena Martin bitxitegiak eta hirugarrena Zubia zapata dendak. Epaimahaiaren esanetan eskaparateari bere osotasunean begiratuta eman dira sariak.



Erregeekin batera **zirkoa** ere hurbildu zen Aretxabaletara. Kiroletxe aurrean kokatuta batek baino gehiagok pentsatuko zuen aurten erregeak gamelu gainean zetozela, baina ez, zirkoko animaliak ziren lasai lasai belarra jaten.

Udalbatzarrak deituta eta Euskal Herriko beste hainbat herritan bezala **presoen aldeko kontzentrazioa** izan zen urteko azken egunean. Euskal Presoak Euskal Herrira zioen pankarta aurrean jende asko bildu zen herriko plazan.



**Erregeak** tronpeta eta danbor hotsez hurbildu ziren kaleetara. Gehientsuenok, Olentzerok opariak ekarri arren, erregeek ere zerbait utziko zuten itzaropenez hurbildu ginen.



## ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan

Tfnoa: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK

## DOIKALSE

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1  
Aretxabaleta  
Tfno: 943 79 82 44

## G U R E A

taberna  
jatetxea

Durana kalea  
Tfnoa: 943 79 20 64

## Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Tfnoa: 943 79 57 47  
Aretxabaleta



Oraindik mugimendu haundirik ikusten ez bada ere laister dira etxebizitzak bertan

## Etxebizitza berri gehiago Iturrigorri frontoi parean

Azken aldian etxebizitza ugari egiten ari dira herrian eta beraien eskaera ere haundia da. Azkenengoak Iturrigorri frontoi parean egingo dira eta 27 etxebizitza berri izateko asmoa dago apartamentu, etxebizitza ertain eta haundien artean. Lanok burutuko dituen Gasteizko enpresa erakitzaile bat da Harritzeko S.L. eta lurrak berdintzen hasi badira ere etxe berriak ikusteko oraindik

itxaron egin beharko da.

Durana kalean, berriz, lau atari eraberrituko ditu enpresa berberak, 15, 17, 19 eta 21a hain zuzen. 15.a eraberritu arren ez da salgai jarriko bertan bizi diren familientzat eta ATSEGI taldearentzat izango baitira. ATSEGI taldeak arazo psikikoak dituzten pertsonak beraien kabuz bizi eta baliatzen ikasteko erabiliko du etxebizitza hau.

## Taxiek geltoki berria

Berria aspaldi aurreratu bagenuen ere, zenbait eragozpen izan direla eta, oraintsu pasa dira taxiak geltoki berrira. Hemendik aurrera Osasun Zentru parean aurki ditzake jendeak, lehenago telefono zenbaki berbera dutelarik.

## Moda desfile berezia

Almen ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleek bizikidetasuna bultzatu asmoz moda desfilea antolatu dute urtarrilaren 22rako. Desfile honek bi helburu nagusi izango ditu: alde batetik, 3. adinekoekin harremanak egin asmoz, hauei gonbidapena luzatu zaie desfilean parte har dezaten. Beste aldetik, desfilean ateratzen den dirua Javi Mayor "Javilo" gaztearen familiari emango zaio. Desfilean parte hartuko duen jendea ez da ohikoa izango, oraingo honetan hirugarren adineko, haurdun eta gazteak izango baitira pasarelako protagonistak. Kasu honetan Basotxo jubilatutako etxeko bazkide batzuk ere izango dira desfilean sasoiko erropak erakusten: Teodulo Toledo, M<sup>a</sup> Karmen Bakaikoa, Pako Unanue, Pilar Zulaika, Eduardo Urkia, Luis M<sup>a</sup> Beitia, Benita Miguel, Gonzalo Martin eta Felisa, Julita eta German Gonzalez. Desfilea urtarrilaren 22an ospatuko da Amaia antzokian arratsaldeko 7etan. Sarrerak aurrez Basotxon eta Arlutzen egongo dira salgai, 250 pezetan 16 urtetik beherakoentzat eta 500 pezetan 16 urtetik gorakoentzat.



## Iñaki Sarasuaren lehenengo meza

Larunbatean, hilak 9, Iñaki Sarasua marianista apaiz ordenatu zen Donostiako marianisten egoitzako kaperan Laboa gozainaren eskutik. Igandean, berriz, herrian ospatu zuen bere lehenengo meza, senide, ezagun eta lagunez inguratutik.

ESKORIATZA  
Tfno 714345  
ERRETEGIA  
Bazkari eta afariak  
MENDIOLA  
Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

REGI ONDO  
optika  
Loramendi, 10  
☎ 943 79 98 21

Okindegia - Gozotegia  
Aretxabaleta  
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19  
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81  
Aretxabaleta  
Bertako okina



**“Bizitza hain laburra eta baliotsua izanik denbora asko alferrikaltzen dugu egin dugunaz edo egin ez dugunaz damutzen”**

## Bizi orain

**N**ik ez daukat idazteko aparatuko graziarik baina, nola ukatu zeregin hau eskatu didanari?

Egun, gai asko daude punta-puntakoak: Viagra, autobia, politika, eta abar.

Nik hauek guztiak adituentzat utzi eta beste zerbaiti helduko diot oraingoan.

Sarritan, norbait gazte hiltzen denean, edota derrepente joaten denean, egunean bizi behar dela esaten dugu, baina ez dakit esaten dugunaz konturatzen garen eta konturatzen bagara ez ote geniokeen geure buruari aplikatu behar.

Bizitza hain laburra eta baliotsua izanik denbora asko alferrikaltzen dugu egin dugunaz edo egin ez dugunaz damutzen: hau esan banu, hara joan izan banintz, ... erremediorik ez daukanari irtenbidea aurkitu nahian.

“Bizitzak ez du mobiolarik” dio Eugenio Ibarzabalek, kazetari eta idazleak, eta gu oraindik konturatu gabe!!

Pasatutakoa ez da inoiz bueltatzen, beraz, zergatik arduratu?

Berdin gertatzen da etorkizunarekin, beti gaude planak egiten, batzuk epe motzera, beste batzuk luzeegira (e.b. jubilarzioak) iritsiko garen jakin barik, gaurkoa aintzat hartu barik.

Lanaren menpe, orduen menpe, ... gauza larregiren menpe. Presaka bizi gara aurrean ditugunak ikusteko kapaz ez garela, bizitzako une bakoitza pasatzen utziz.

Hau guztia ez da gaur goizeko inbentua eta esatea egitea baino askoz samurragoa da. Pertsonak garenez gero burua denboran atzera eta aurrera darabilgu eten barik, baina egunerokoari kasu egingo bagenio ez genuke hainbeste denbora alferrikalduko.

Filosofatzen hasten naizenean haria galtzen dut beti. Ba, bakoitzak hel diezaiola bereari eta bizi dadila nahi edo ahal duen moduan baina oraina ahaztu barik.

Bizitzeko zergatia duenak beti aurkitzen baitu bizitzeko modua.

Miren Arenaza

**M**  
**MEMESA**

**Industri hornidurak**

Tfnoa: 943 71 24 11  
ARETXABALETA

**IZOTZ**  
**Taberna**

Mitarte, 16 • Tfnoa: 79 73 65  
Aretxabaleta

**BASABE**  
**jatetxea**

Basabe bidea z/g  
Tfnoa: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

**PAGALDAI**  
**Opari denda**

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14  
ARETXABALETA



# Iñaki Sarasua

## Apaiz marianista

33 urte ditu eta atxabalta-rra da nahiz eta orain 15 urte herritik alde egin marianista izateko. Orain bere erlijioso bizitzan beste pausu bat eman du, Laboa gotzainaren eskutik larunbatean apaiz ordenatu baitzen.

Bere lehenengo meza Aretxabaletan eman nahi izan du, behar bada badakielako beste denboraldi batean behintzat ez dugula ikusiko.

**- Noiz hartu zenuen erlijioso izateko erabakia?**


- Hemeretzi urtekin, Bilbon Unibertsitatean fisika ikasten nengoela erabaki nuen. Marianista erlijiosoak Almenen ezagutu nituen, bertan komunitate bat zegoelako eta beti iruditu zitzaidan oso bizitza modu erakargarria zela. Jadanik garai hartan nahiko argi neukan Jesusi jarraitzean zegoela nire zoriontasunaren giltza.

**- Zergatik erlijioso marianista?**

- Marianistak Almenetik ezagutzen nituen eta pozik eta elkartean bizi izanak eman zidan atentzioa. Marianisten artean talde laikoak ere badaude gaur egun, fraternitate marianistak, baina garai hartan orduantxe zebiltzan sortzekotan. Nire bidea erlijioso aldetik zela iruditu zitzaidan eta gerora, gainera, nire Jainkoagandiko deia hori zela deskubritu nuen.

**- Zergatik orain apaiz?**

- Marianista bokazioa argi neukan eta botuak egin ostean urtero berritzen nituen. Handik sei urtera edo betirako botuak egiteko garaia iritsi zitzaidan eta orduan komunitatean apaiz izan edo ez erabakitze-



**“Nahiko argi neukan Jesusi jarraitzean zegoela nire zoriontasunaren giltza”**

ko momentua izaten da. Hemen nire inguruko marianistek, ni ezagutzen nindutenek, oso paper garrantzitsua jokatu zuten. Asko animatu ninduten eta ni, diszernimentua egin ostean, Jaunak alde hortatik deitzen ninduela konturatu nintzen.

**- Zer ekarri edo eman dizu bizitza erlijiosoak?**

- Gauza asko, nik uste nire bizitza poliki-poliki osatu egin duela.

Eman, alde batetik anai asko, lagun asko, bereziki bat Jaungoikoa bera, eta gero Euskal Herritik irteteko aukera. Orokorrean ikuspuntua zabaltzeko aukera izan dut, norbere sustriak galdu gabe noski, ni Euskal Herrira oso gustora bainator eta euskaldun sentitzen bainaiz.

**- Zer utzi duzu alde batera aukera hau egitean?**

- Aukera guztiak ate bat zabaldu eta beste mordo bat ixtea dira, beraz, gauza asko. Aukera honek bizitza komodo bat, norberaren hainbat proiektu, emakume bat eta seme-alaba batzuk, zuk nahi duzuna egiteko askatasuna, aberastasun batzuk,... gauza asko uztea eskatzen du, baina benetan kontentsatzen duela uste dut.



**- Orain arte non ibili zara?**

- Hemendik lehenengo Zaragozara joan nintzen, han bi urte egin eta ondoren Valentziara. Hemen hiru urte egon nintzen irakasle bezala eta gero Donostiako marianisten ikastetxean beste sei. Azkenenengo hiru urteak Erroman eman ditut apaizgorako prestatzen. Orain Valentzian nago berriz, seguru asko urte pare bat ikasketak bukatu arte, teologia biblikoan espezializatu nahi baitut. Ondoren Euskal Herrira itzultzea gustatuko litzaidake.

**- Zer sentitzen da lehenengo meza honen aurrean?**

- Poza eta emozioa herrian delako eta lagun asko ikusten ditudalako. Apaiz bezala lehenengo pausua delako ere emozioa, Jaungoikoaren maitasunaren tresna naizela konturatzeko bainaiz. Orain arte era batean lan egin dut eta orain beste batera hasiko naiz.

# centro hogar MUEBLES



a, eme interiores

sukaldeak



sofa  
leku

**GRUPO**  
**Amuebladora Mondragonesa**

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE  
Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxe 943.791498



# ATXABALTA

## TELEBISTA

Norbaitek noizbait izan zuen burutazio edo ametsa egi bihurtzen ari da. Lehenengo aldizkari apal eta txikia sortu zen, poliki poliki hazten joan den herri aldizkaria. Orain, berriz, telebista dator, apal eta txikia, baina denon artean haziko dena.

Herriarentzat eta herriarena izan nahi duen telebista honen atzean gogor dabil jendea lanean, inolako interes pertsonalik gabe eta beraiek duten nahi bakarra herritarren parte hartzea izanik. Ea lotsa alde batera utzi eta dei horri erantzuteko gai garen atxabaltarrok.

**E**gunen batean telebista piztu eta benetak sorpresa hartuko dugu Atxabalta telebistarekin topo egiterakoan. Egun hau gainera batzuk uste baino lehenago helduko da eta orduan etorriko da kritikak egin, iritziak bota eta konparaketak egiteko ordua. Bitartean zain egon eta berehala 28. kanalean ikusi ahal izango duzu.

### ARETXABALETAKO KOMUNIKABIDEAK-LORAMENDI

Telebista sortzearen ideia orain hiru bat urte Loramendi E.E.k antolatutako mintegi batzutan agertu zen. Ideia airean geratu zen, orain urte bete inguru lan talde bat sortu eta serio lanean hasi arte, Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarte hain zuzen. Elkarte hau sortzean konumikabide ezberdinak bateratuko dituen lan talde indar-

tsua eratu nahi izan zen, denak, orain arte sortutakoak eta gerora begira sortuko direnak, lan egin ahal izateko. Talde berri hau bederlatzi pertsonak osatzen dute lehen-dakari, diruzain eta bokalak barne. Bederatzikote hau leku ezberdinetatik zetorren jendeak osatu zuen bi Loramenditik, hiru Aretxagazetatik, bi telebistatik eta beste bi herritarren artetik aukeratuak. Hasieran jende asko hurbildu bazen ere, gero eta gutxiago geratu dira, benetan gogor lanean dihardutenak Mikel Uribebarria lehendakaria, Alberto Trojaola eta Jokin Antxia direlarik.

Momentu honetan Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi barruan Aretxagazeta aldizkaria eta Atxabalta telebista daude, baina be-

ti sortuko liratekeen komunikabide berriei zabalik. Lantoki bera izan eta batera lan egin arren bakoitzak bere funtzionamendu propioa du erre-dakzio batzorde bitartez gidaturik.

### TELEBISTAREN HELBURUA

Baina zergatik Atxabalta telebista? Elkarteko kide hauen esanetan bi helburu izan dituzte kontutan honen aldeko apostua egiterako orduan, batetik herri mailako komunikabideak osatu eta indartzea, telebistak duen prestijioa kontutan izanik eta euskararen erabilpena bulztatzea bestetik.

“Telebista, soinu eta irudiak di-rela medio, prentsa idatzia baino askoz komunikabide erakargarriagoa da. Telebistarekin gainera Are-



*Telebistako platoa gertu dago grabaketa saioekin hasteko, aurkezlea besterik ez da falta*

txagazeta heltzen ez den tokietara sar gaitezkeela uste dut”.

Era berean, euskara orokorrean, baina batez ere herriko euskara indartu eta bultzatzeko oso tresna interesgarritzat ikusi da. “Honek ez du esan nahi gazteleraz hitzegiten dutenak baztertuko direnik, baina gure helburua euskararen alde lan egitea izango da” dio Mikelek.

### FINANTZIAKETA

Hain proiektu handia eskuarte an ibiltzearen arrazoi garrantzitsue-na gaur egungo telebistako ekipamendua teknologia digitalean oinarrituta egotean datza. Teknologia digitalak inbertsio nahiko txikia egi-nez lan ona egiteko aukera ematen du.

Hasierako ekipamendu eta funtzionamendu gastuen kargu Udaletxea, Loramendi E.E. eta enpresa pribatuak egin dira. Gerora begira helburua %40 publikoa ez den diruaz finantziatzea da, hau da, publizitate eta enpresa pribatuen laguntzaz. Beste %60, berriz, Udaletxe, Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzatik lortzea espero dute, nahiz eta azken bi hauek oraindik telebistentzat diru partidarik ez izan.



Grabaketa eta editazio gelan lan ugari egongo da teknikariarentzat

### Finantziaketa

- Ekipamendu gastuak 5.100.000 pta.  
- plato eta grabazioa  
- kamara eta irudi tratamendua  
**Udaletxea**
- Antena 2.800.000 pta.  
**Loramendi E.E.**
- Funtzionamendu gastuak  
**Enpresa pribatuen laguntza**

### HERRI TELEBISTAK

Arrasate telebista edo ATBrekin lan egitea ere pentsatu zuten hasiera batean, baina pertsonal aldetik kopuru berbera behar zela han edo hemen eta inbertsio txiki batekin telebista berri bat sortu zitekeela ikusita, proiektu berriari heldu zioten. “Herrikotasuna asko baloratzen dela uste dugu eta hau oso puntu garrantzitsua izan zen erabakitzeo orduan”-dio Mikelek-“Egitura minimo bat herrian behar beharrezkoa

### HASIERAKO PROGRAMAZIOA:

Ordutegia	ASTELEHENA	EGUAZTENA	EGUAKOTXA
20:00	ALBISTEAK: Atxabaltako albisteak Gai orokor bat aditu baten eskutik Eguraldia	ALBISTEAK: Atxabaltako albisteak Gai orokor bat Eguraldia Udaletik	ALBISTEAK Atxabaltako albisteak Gai orokor bat Eguraldia
20:20	KIROLAK	JOLASEAN	AGENDA
20:30			ATXABALTA EZAGUTZEN



zen ATBkin lan egin edo ez eta diru kostua ere antzekoa ateratzen zitzaigun”.

Hainbeste telebista kate dauden

## “Herrikotasuna asko baloratzen dela uste dugu”

aro honetan herri telebista sortzeak zentzurik baduen galdegin dezake norbaitek. Informazio lokala jorrazteko egokienak izan daitezke hauek, baita herritarrei zerbitzuak eskaintzerakoan osoenak ere, herriarentzat eta herritarren parte hartzeaz funtzionatzen baitute.

Alberto Trojaolaren esanetan “Argi dago gure telebistak arrakasta izan dezan atxabaltarren parte hartzea eta laguntza beharko duela. Horretarako gai garen heinean proiektu honek aurrera joko du”.

Beste telebista batzuren esperientziak ere ezagutu dituzte eta berarentzat interesgarrienak Elizondoko Xaloa telebista eta Eskoria-

tzako Telesko izan dira, txikiak izanik gogoz eta gogor lanean dihardutelako. Gipuzkoako Oarso eta Nafarroako ttipi-ttapa telebistek bestalde, Euskarazko Herri Telebisten Federazioa martxan jarri berri dute elkarrekin lan egin eta elkarri laguntzeko. Ea laister Atxabalta telebista ere bertan partaide izateko gai den.

### SINTONIZAZIOA

Oraindik ezer emititzen ez bada ere etxeetan jadanik ajuste karta ikus daiteke, 28. kanalean hain zuzen. Antena kolektiboa duten etxeetan, ordea, oraindik ezin izango dute ezer ikusi, seinalea indartzeko amplifikadore txiki bat jarri beharra baitago. Hau konpontzeko antenatari deitu eta berak emango dizue informazio zuzen eta zehatzagoa.

Herritar eta herriko taldeentzat lan egiteko gertu dagoen telebista txiki eta apal honi ongiatorria eman eta animatzea nahiko genuke Aretxagazetatik, lana gogor egin beharko baita baina denon artean lortuko dugu.



### Haritz Altube

Atxabalta telebistako teknikaria

#### - Zein ikasketa dituzu?

- Andoainen ikus entzuzeko teknikari titulua lortu nuen.

#### - Orain arte esperientziarik izan duzu komunikabideen munduan?

- Arrasate irratian ibili nintzen. ATBra praktika batzuk egitera joateko asmoa nuen, baina sartu aurretik hona etortzeko deitu zidaten.

#### - Zein izango da zure lana?

- Denetik egin beharko dut. Kamararekin kalean ibili irudiak hartzeko, ondoren irudiak montatu, editatu, platoan grabatu...

#### - Zer iruditzen zaizu erositako ekipamendua?

- Ekipamendu digitala da eta ondo dago, lortzen den irudiaren kalitatea oso ona baita. Kamarak txikiak dira eta horrek bere eragozpena ere badu tripodearekin ibili beharra, eskuan ibiliz gero irudia asko mugitu daiteke eta.

#### - Nola ikusten duzu Atxabalta telebista proiektu hau?

- Oso interesgarria iruditzen zait eta ondo ateratzea espero dut. Hasierean lan asko egin beharko da ez dagoelako ezer eginda eta jendearen laguntza beharko dugu. Martxan hasteko gogo haundiz nago eguneroko lanean nola moldatzen naizen ikusteko.

*Telebista sortzeko ideia lehen aldiz entzun nuenetik denboratxoa igaro da, baina gutxi barru nire etxeko telebistan nire herriko telebista ikusteko aukera izango dut. Duela urte batzuk burutik pasatu ere ez zitzaidan egingo Aretxabaletan telebista bat izango genuenik, baina gaur telebista errealitate bihurtu zaigu.*

*Egia esateko herriko telebista izateko ideia asko gustatzen zait baina ideia horren gainean pentsatzen hasten naizenean galdera asko datozkit burura: Aretxabaletako telebista bideragarria izango da? Gaur egun horrelako proiektu batek badu irtenbiderik? Zer lortu nahi da telebista horrekin?... Galdera gehiegi, beraz, telebistaren errealitateari buelta gehiago ez ematea erabaki dut. Datorrena datorrela ondo etorria izango da. Badakit telebistaren proiektu honen inguruan gogoz, gogor eta batez ere ilusioz jende talde bat ari dela lanean eta hori eskertu egin behar da.*

*Bestalde, ez dakit telebistarekin asmatuko dugun ala ez, baina abian jartzeko zorian gaudenez, ahalik eta produktu bikainena ateratzen ahalegindu beharko dugu. Zorte onena Atxabalta telebistari. Bukatzeko beste proposamen bat, herri bakoitzak telebista bat izan ordez, Deba Bailarako edo Garaiko telebista indartsu bar sortuko bagenu? Ideia hau ere gustatzen zait.*

**Itxaro Zubillaga**



Kopyprest taldea izan zen Peña Zubiko irabazlea

## Kopyprest talde atxabaltarra Peña Zubin txapeldun

### Hamabi talde partehartzaileek trofeo dotore bana jaso zuten

Azken urteotan Peña Zubizarretakoek antolatzen duten torneoa Kopyprest taldea izan da garaile. Hala ere ez da trofeo bakarra eman duena izan, izan ere 12 talde partehartzaileek ondo merezitako trofeo dotore bana jaso baitzuten. Guztira 12 taldek izan zuten torneoan gozatzeko aukera, horietatik bost arrasatearrak, bi eskoriatzarrak eta gainontzekoak atxabaltarrak.

Partiduak gabonetan zehar jokatu ziren Ibarra futbol zelaian, finala, berriz, urtarrilaren 5ean izan zen. Hemen Bar Basilio talde arrasatearra eta Kopyprest talde irabazlea aritu ziren lehian. Talde atxabaltarrak garaipena lortu zuen, azken urteetako talde kanpotarren

garaipenak apurtuz. Hauen atzetik: Leize txiki, Sacerdote, Arrasate kirolak, Los quinielos, Bizkorak, Euskal Intxak, TBM, Astore pastore, NPI eta azkenik Udalaitez taldeak sailkatu ziren. Horrez gain sari berezi bat ere egon zen. Alberto Luelmok sinpatia saria jaso zuen torneoa zehar egin duen lan izugarriagatik. Sari berezi hau duela 10 urte hasi ziren ematen eta esan beharra dago beti itxura bereko trofeoa izaten dela, hau da, Kontxako barandauaren irudia. Esan beharra dago sari guztiak J.J. Barkeroren Errealeko jokalaria eman zituela.

### Populartasunetik profesionaltasunera

Peña Zubi torneoak izan du alaketarik azken urteotan, jokalarien mailari dagokionez batez ere. Hasi era batean torneoa Iturrigorri frontoian jokatzen hasi zenean, hau popularragoa zen. Koadrilak izaten ziren parte hartzen zutenak eta jokatzea zen garrantzitsuena. Gaur egun profesionaltasun gehiago nabari da eta jokalaria gehienak beste futbol talde batzutan dabilzanak dira.

Mota haueko torneoetan adiskidetasuna eta lagunartea nagusi izatea nahi da, hori bultzatu gura da behintzat. Baina jakina, taldeen artean lehia gogorra izaten da, partiduetan nork gol gehiago sartu aurkakoaren atean. Baina borroka horren atzetik gazteengan kirolzaletasuna bultzatzea arlo garrantzitsua da Peña Zubizarretakoentzat. Hori erakusteko talde partehartzaile guztiak jasotzen dute trofeo bana.



Alberto Luelmok sinpatia saria jaso zuen J.J. Barkeroren eskutik

**ERREKABARREN**  
MEREKATAL ZENTRUA

- JUANTXO URDAITEGIA 79 75 42
- MARI KARMEN OINETAKO DENDA 79 59 85
- IRUDI ILEAPAINDEGIA 79 80 90
- MIREIA ARRAINDEGIA 79 31 59
- LEINTZ-ROSI 79 78 63
- ERREKABARREN FRUITATEGIA 79 96 43

# Javier Etxeberria "Fito"

## Hamar urtez UDAko delegatua

Orain hamar urte UDAko Preferente mailako delegatu jarri zenetik ia arratsaldero Ibarra futbol zelaitik bueltatxo bat ematen du Fitok. Hainbat lan egiten du bertan, astebukaeretakako partiduetarako dena gertu izatea da bereziki bere ardura. Horrenbeste urtetan bertako delegatu izateak arrazoi bakarra duela esan digu: gustora egotea.

• **Hamar urte UDAko delegatu, zein da konkretuki zure lana?**

Denetik egin behar izaten dut, delegatu lanak eta bestelako lanak ere bai. Denboraldi hasieran izaten da lanik haundiena, orduan talde guztietako materialiaz arduratzen bainaiz. Gero denboraldian zehar Preferente taldeko delegatu lanak egiten ditut, astebukaerako partidurako dena gertu utziz.

• **Hamar urte delegatu lanetan asko dira. Zerk mantentzen zaitu bertan?**

Gustora sentitzeak. Tabernetan ibiltzea baino gurago dut horrelako zereginak egitea, eta gainera oso gustora nago, bestela ez nuke jarraituko.

• **Nolabait konpentsatzen da egiten den ixileko lan hori?**

Nik baietz esango nuke. Bai jokalariek eta baita afizionatu eta bazkideek ere eskertzen dute.

• **Delegatu izateaz gain, futboleko beste arlo batzuk ere ikutu dituzu, jokalaria ere izan zara eta baita arbitro ere.**

Futbolean baino gehiago futbi-



**“Hemendik bi urtera UDAk hirugarren mailara igoko du”**

toan jokatu izan dut, bai Zaldibarran, eta baita herriko frontoian ere.

Arbitro lanari dagokionez, hau gustoko lana dut. Txarrenak gurasoak izaten dira. Orain gaztetxoan partiduak bakarrik arbitratzen ditut, Peña Zubi torneoaren esaterako. Dena den, gaur egun arbitro federatuak daude eta ez dago horrenbeste behar.

• **UDAz gain gabonetako Peña Zubi torneoan ere hartzen duzu parte, orduan?**

Bai, Iturrigorri frontoian jokatzen

hasi zenean hasi nintzen bertan laguntzen. Gero Ibarra egitea proposatu genien Peña Zubikoei eta hauei ondo iruditu zitzairen. Guri ere ondo zertorkigun infantil mailako jokalariek hartu ahal izateko.

• **Nola ikusten duzu UDAko taldeen etorkizuna?**

Nik esango nuke UDAn oinarri ona dagoela, eta beraz, itxaropentsu ikusten dut UDAko taldeen etorkizuna. Gazteenek goiko taldeetarantz igotzen jarraitu behar dute, horrela harrobitik ahalik eta etekin onena ateratzeko. Jokalariek ahal den neurrian harrobitik hartu behar dira. Kanpotik ekartzen badira, kasu hauek, jokalaria hobeak izan behar dute, kalitate berekoa bada harrobitik hartzen da.

• **Eta zeure taldea, Preferentea, nola ikusten duzu?**

Oso ondo. Jokalaria nahiko gazteak dira eta aurten ere behetik lau jokalarik igo dute. Hemendik urte pare batera talde sendoa izango da eta orduan hirugarren mailara igozteko posibilitate haundiak izango ditugu, eta ziur nago lortu ere lortuko dugula.

• **Eta zu zeu Athletic zale amorratua zaitugu, eta gaur egun UDAko jokalariek Errelera joaten dira...**

Bai, ni neu Athletic zalea naiz, baina lehenengo UDAko zazpi taldeak daude. Bestalde, logikoa iruditzen zait UDAtik jokalariek Errelera joatea. Lehen Erreala ez zen larregi arduratzen harrobiko jokalariek eta ez zuen dirurik ordaintzen. Orain ondo ordaintzen du eta badira lau bat urte Errealeko filial garel.

# Landare haragijaleak

Gure artean oso ezagunak ez badira ere mota askotakoak daude munduan sakabanaturik

**Landare haragijaleak oso gauza arraro bezala ikusi izan dira betidanik gure gizartean, baina zergatik moxal batek larreko belarra jateari egoki deritzogu eta landare batek haragia jatea izugarria iruditzen zaigu?**

Nahiz eta mundu guztian zehar landare hauei buruzko beldurrezko ipuin asko zabaldu, gure artean ez dute izu askorik sortzen txikiak eta arriskugabeak direlako.

## Sailkapena

Landare haragijale mota asko daude eta hauek honako lau taldeetan sailkatzen dira: Nentazeak, Zefalotazeak, Sarrazeniazak eta Droserazeak edo Droserak.

Azken talde honetakoak dira gaur egun aurki ditzakegun landare haragijale gehienak. Droseren taldea, gutxi gora behera 90 espeziek osatzen dute eta hauek ia mundu guztian zehar zabaldua daude, Patagoniatik Ipar hemisferioko lurralde beroenetara.

## Euliehiztaria


Droseren taldeko lan-

daririk ikusgarrienetakoa euliehiztaria dugu. Landare hau lurralde epel edo beroetako aintziren inguruan hazten da normalean. Nahiko landare haundia da, txikiak ere 30 zm.ko garaiera du eta lore zuriska txiki batzuek ornitua dago. Hostoek oso arantza luze eta zorrotzak dituzte eta hauen erdialdean zepoa martxan jartzen duten ile txiki batzuk aurkitzen dira. Intsektu edo animalia txiki bat (gehienetan igel txikiak), landareak isuritzen duen likido goxoengatik

erakarria, hostoaren erdialdean jartzen bada, iletxo aktibatzaileak ikutu egiten ditu. Honen ondorioz, hostoa harrapakinaren inguruan ixten da eta alboetan kokatuta dauden arantza zorrotzek, intsektuak edo animaliak ihes egitea galarazten dute. Zuku dijerigarri batez lagunduta, ehun bigun guztiak jan eta gero, hostoa ireki eta bere tranpa jartzen du berriro.

## Nitrogeno beharra elikatzeko

Euliehiztariak harrapatutako intsektu eta beste animaliangandik nitrogenoa eta beste zenbait sustantzia beharrezko lortzen ditu eta hauek oso elikagai eskasak dira euliehiztarien bizilekuan, hau da, aintziretan eta lakuertzetan. Landu edo hazi egiten direnean, beste iturri batzuetatik (lurrean aurkitzen diren ongarri kimikoetatik adibidez) lortzen dituzte bizitzeko beharrezkoa duten nitrogenoa eta beste sustantziak eta landareak jadanik ez ditu intsektu eta animalia txikiak ehizatu behar elikatzeko.



*Droserazeen taldeko euli ehiztaria oso landare bitxia da*

Iñaki Barrenetxea

ARGAZKI

*Urkiola*

Tfnoa: 943 79 39 20  
ARETXABALETA

GARBITU S.  
COOP.

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
Tfnoa: 943 79 01 28



**ARLUTZ**

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34





## Elkarte Kultural Gastronomikoak

Elkarte Kultural Gastronomikoeak hasieran bazuten, beti ere, horrelako jakin-min eta gauza berriak ikusteko egarria. Aretxabaletako Muru Alde Elkarteak 50. hamarkadaren hasieran eratu zen. Gaurko egoitza bazkideek ezagutu duten hirugarrena da eta zer esanik ez, ordutik hona gauzak asko aldatu dira.

Esan digutenez urtero burutzen zuten irteeratxo bat. Aurreko urtean, eta Juan Luis Izagirrek zuzendutako ibilaldian bestaldera pasatu ziren, Euskal Herriko txoko desberdinak ezagutu nahian edo. Argazkiko honetan Nafarroarantz joan ziren, Felix Arenaza presidente zelarik. Gauzak ondo prestatu behar dira eta astebete lehenago, Jose Angel Galarraga eta Demetrio Iriarte joan ziren detaile guztiak prestatzen; hauetako bat, bazkaria, Basarri jatetxean burutu zuten.

Argazkikoeak orain baino 40-45 urte gutxiago dute.

Goitik hasita eta ezkerretik eskumara: **Donato Larrañaga, Ignacio Azkoitia, Donato Urrutia, Romualdo Uribeetxebarria, Teodoro Zuazua, Eugenio Zubizarreta, Felix Arenaza, Kornelio Elkorro, Jose Etxebarriarteun, Akilino Garai.**

Idea eta argazkia: Felix Arenaza

Testua: Aitor Antxia Leturia

### OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 943 79 98 74  
ARETXABALETA



### MAPFRE Aseguroak

Errekabarren, 3  
Tfnoa: 943 77 11 76

### GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18  
Aretxabaleta

### Jose Mari bodegoia

#### Eguneko menua

Nafarroa, 6  
☎ 943 79 20 45  
Aretxabaleta

## LANA

◆ Egun erdiz **kazetari lanak** egiteko pertsona bat behar da **Atxabalta telebistarako**.

Baloratuko dena:

- euskara maila
- herrikoa izatea
- esperientzia izatea

Curriculum-ak udaletxe zaharrea, Durana 11 2. pisura ekarri edo Aretxabaletako 151 postakutxatilara bidali. Aurkezteko epea urtarrilaren 29an bukatuko da.

◆ 2. DBH arteko ikasleei **klase partikularrak** emango nizkieke. Interesatuak 943 79 25 62 telefono zenbakira deitu (Arantzazu).

◆ **Langaiko lan eskaintza**

**Bi injinieru.** Arabako lautada. Erref. 15207/1

**Bi injinieru industrial.** Deba Garaia. Erref. 15227/2

**Bi zerbitzari laguntzaile.** Arrasate. Erref. 15558/4

**Mekanizazioarako injinierua.** Bilbo. Erref. 14566/4

**Bi zerbitzari.** Fuerteventura. Erref. 15418/1.

**Lau igeltsero peoi.** Bilbo. Erref. 15563/1.

**Zuzendari gerentea.** Bidasoa behea. Erref. 15460/2.



**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu, deitu 943 79 86 21 telefonora edo 943 79 54 11 erantzungailura. Dohainik da.**

**Trafikoko arduradun operadorea.** Bidasoa behea. Erref. 15460/2.

◆ **Lan eskaintza publikoak**

**Zuzenbide lizentziatua.** Iruñako Udala. Epea: 99/1/15. Oinarriak: 98/12/16.

## DENETARIK

◆ Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan. Arratsaldeko 7etatik 10ak bitartean deitu eta bestela mezua utzi. Tfnoa: 919 672 669

◆ Donostia edo inguruetan pisu konpartitu batean bizi baldin bazara eta lekua libre baduzu deitu 943 79 06 75 telefono zenbakira (Saioa).

◆ Mutil amerikar batek gaztelaniazko klaseak hartu nahiko lituzke. Interesatuok 943 79 77 28 telefono zenbakira deitu gaez.

◆ Bigarren eskuko trabesiako eskiak erosi nahi dira. Norbaitek izanez gero 943 79 27 14 telefono zenbakira deitu dezala (Amaia).

## ETXEBIZITZA

◆ Pisu bat alokatu nahi da Aretxabaletan. Tfnoa: 943 79 80 41.

◆ Aretxabaletan edo Arrasaten alokatzeko pisu baten bila nabil. Tfnoa: 943 71 20 72.

## LEHIAKETAK

◆ **“ARRASATE 98” lehiaketak.** AED Elkarteak eta Arrasateko Udalaren laguntzarekin, Leintz Bailarako gaztetxo guztiek eta 17 urtetik gorako Deba Garaiko edozein pertsonak parte har dezaketen bi lehiaketa mota antolatu ditu:

- Literatur lehiaketa: ipuina, poesia eta bertso paperak. Atal guztietan gaia librea da eta idazlanak hiru kopiatan aurkeztu behar dira.

- Lehiaketa ezberdinak: komikia, Leintz Ugaran bailaretako euskaran egindako magnetofoi grabaketak eta irrati erreportaiak.

Komikia lau eta sei orrialde bitartekoa izango da DIN-A 4 formatoan aurkeztua. Grabaketak eta irrati erreportaiak 10-15 minutu tartekoak izango dira, gaia Arrasateri lotua egon beharko delarik. Grabaketak gure bailaretako euskalkian jaso beharko dira bi sail bereiztuko direlarik elkarrizketa eta kontaktuzuna.

Lanok aurkezteko epea otsailaren 26an bukatuko da. Informazio gehiago Arrasateko AED elkartearen.

**EXPRESS**  
**AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 943 79 23 43

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 943 79 07 34/79 31 87

**CONSUM EROSKI**

*Orain arraindegi  
eta okindegiaz, zatoz!*

Mitarte kalea z/g 943 79 92 11  
ARETXABALETA

# Edurra ere heldu zaigu



*M. J. Arretxe*

Gabonak joan zaizkigu eta orain urtarrileko kilo, gastu eta beherapenei aurre egin behar. Edurra behintzat egin digu eta horrek bat baino gehiago animatu gaitu **Kurtzebarrira** jolas egitera joatera, elkarki edur pelotak bota, plastiko gainean jeitsi,... eskerrak horrelako momentuei! Bide batez, ea edur honekin urtarrilaren 3an bertan izandako sutean erretako belarra hazten den, mantxa beltz horiekin oso zatar baitago gure mendi kutuna.

Hilabeteko kontua bada ere oraintxe enteratu naiz eta beste batzuk ere nire antzera ibiliko direnez, San Martin San Jose kofradian sartu berri direnen izenak emango dizkizuet: **Arantza Antxia**, **Ane Gaztañaga**, **Jesus Garai**, **Juan Fraile** eta **Alejandro Urcelai**. Benetan pozgarria bi neska egongo direla jakitea, gure ikuspuntua hor ere ager dadin.

Gabonak pasa dira baina oraindik mutiko batek


baino gehiagok izango du gogoan Peña Zubi txapelketan saria **J.J. Barkero** errealeko jokalaria eman ziola. Zorte hori izan ez zutenak begiratu eta autografoa eskatzearekin konformatu behar.

Kirolekin jarraituaz egunero gertatzen ez den berria dakarkigu **UDAK**. Orain bi aste Oiartzunen kontra jokatu eta galdutako partida inpugnatu egin dute UDako arduradunek, aurkako taldean partidu bateko zigorra zuen jokalaria jokatu zuelako. Kasua aztertu ondoren UDARI arrazoia eman eta azkenean hiru puntuak, ohiko bidetik ez bada ere, etxera etorri dira.

Kultur kontueta pasatuz, joan den asteko Argia aldizkarian atxabaltar bat dator **Miriam Urkia** hain zuzen. Europako hizkuntza minoritarioei buruzko proiektu batean sartuta dabilela esaten digu bertan. Kanpotik jakin behar etxeokoz zertan dabilzan, hau da hau... Kultur gaiekin jarraituz Kutxa fundazioak antolatutako ipuin lehiaketan bi atxabaltar izan genituen irabazle euren kategorian, **Martin Antxia** eta **Mikel Barrenetxea**, zer eta euroari buruz idatzitako ipuinaz gainera.

Bukatzeo Aretxagazetak antolatutako **erreportaia lehiaketan** parte hartzerantz animatzen zaituztet. Idazteko zaletasuna duen atxabaltar ugari dagoela badakit, beraz, guzti horiei luzatzen diet deialdia, ez baitago idazle profesionala izan beharrik; gainera nori ez datorkio ondo dirutxo apur bat? Behar bada neuk ere parte hartuko dut...

## Liburutegiko txokoa



### La mujer que se daba con las puertas

Roddy Doyle  
Alfaguara, 1998

**P**olizia batek Paulari bere senarraren heriotzaren berri ematean hasten da emakume hau bere bizitza gogora ekartzen. Dublineko langile auzo bateko errealtate gordina jarriko digu begi aurrean; batez ere bere senarrak urteetan eragindako tratatu txarrak, alkoholismoa, semeak aurrera atera beharra eta bizitza latz hori aurrera eramateko egiten dituen ahaleginak.

Nobelan kontatzen dena gogorra da, baina beti ere imaginazio handiz eta umore ikutu berezi batekin kontatua. Emakumeei emaniko tratatu txarren gaia oso ondo isladatzen da liburuan, baita bizitzaren gordina ere; baina azkenean, dena hain beltza ez dela ikusi ahal izango da esperantzari bidea irekiz.

Roddy Doyle Irlandako idazlerik ezagunenatarikoa da eta bere hainbat nobela zinera eraman izan dituzte "The Commitments" eta "Kamioneta" (The Van-Stephen Frears) adibidez.

Joseba Lopez de Armentia

URTARRILA

17

21

domeka

eguna

15

eguakotxa

**ZARAIA M.T.K BAZKIDE BILTZARRA**

Zaraia Mendizale Taldeak ohiko bazkide biltzarra ospatuko du.

**ARGAZKI ETA MAKETA ERAKUSKETAREN BUKAERA**

Egun honetan emango zaio bukaera Gabonetan zehar udaletxe zaharrean Argazki Artxibokoek jarritako erakusketari.

**ESKOLA ARTEKO X. LORAMENDI LITERATUR LEHIAKETAREN SARI BANAKETA**

Loramendi E.E.k antolatutako lehiaketaren sari banaketa egingo da udaletxe zaharrean arratsaldeko 7etan.

22

eguakotxa

16

zapatua

**TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX PAILASOAK**

Negu kulturalari amaiera emateko pailasoak izango dira umeentzat kiroletxean arratsaldeko 5etan. Sarrerak aurrez erosita 300 pta. izango dira eta bertako takilan 500 pta.

**ZARAIA M.T.K FINALISTA EGUNA**

Zaraia Mendizale Taldeak finalista eguna ospatuko du Mendiola Burun.

**MODA DESFILEA 99**

Almen ikastolako DBHko 1 eta 2. mailako ikasleek antolatuta, hirugarren adineko, haurdun eta gazteen desfilea izango da Amaia Antzokian arratsaldeko 7etan. Sarrera 250 pta. 16 urtetik beherakoentzat eta 500 pta. 16 urtetik gorakoentzat. Jasotzen den dirua Javi Mayor "Javilo" gaztearen familiari emango zaio.


28

eguna

**PORROTX PAILASOA**

Kultur errota barruan hilabete honetan Porrotx pailasoaren bisita izango da herrian.

*Gustora joango dira umeak pailasoen saiora*



Egun erdiz **KAZETARI LANAK** egiteko pertsona bat behar da **ATXABALTA TELEBISTARAKO**.

Baloratuko dena:

- euskara maila
- herrikoia izatea
- esperientzia izatea

Curriculumak udaletxe zaharrera, Durana 11-2., ekarri edo Aretxabaletako 151 pk.ra bidali.

Aurkezteko epea: urtarrilaren 29an bukatuko da

**BENGOA URDAITEGIA**


*Bertako okelak eta mortzilak*

Durana, 9  
Tfnoa: 943 79 19 79

**Mobiliario ARENAZA**

**ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA**

Bizkaia,1 - Tfnoa: 943 79 08 07  
ARETXABALETA



**Haizea**

*Zure gustoko giroa*

Mitarte z/g  
Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 79 85 57

**LEIBAR arraindegia**

Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 943 77 13 79  
ARETXABALETA



# IKASTAROAK

## TXALAPARTA IKASTAROA

Hastapen eta sakontze mailak emango diren txalaparta ikastaroa otsailaren 5etik maiatzaren 8ra luzatuko da Musakolako saloian. Eguakotxetan arratsaldeko 8etan eta zapatuetan goizeko 9etan emango da. Prezioa 2.000 ptakoa da. Informazio gehiagorako Arrasateko gazte bulegora deitu, 943 77 00 65.

## ALBOKA IKASTAROA

Arrasateko gazte bulegoak alboka ikastaroa antolatu du. Urtarrilaren 23tik San Juanak artean luzatuko da eta zapatu goizetan emango da hiru txandatan: 10-11, 11-12, 12-13. Hastapen maila eta sakontze maila emango dira Arrasate musikaleko egoitzan. Prezioa: 3.000 pta eta ikasle eta langabetuentzat 2.000 pta. Informazio gehiago Arrasateko gazte bulegoan 943 77 00 65 telefono zenbakian.



BEHARREZKO  
TELEFONOAK

## Aretxagazetako erreportaia lehiaketa

- 1.- Lehiaketa honetan Aretxabaletan ikasi edo bizi den edonork har dezake parte.
- 2.- Hamasei urtetik gorakoa izan beharko da.
- 3.- Lan guztiak euskaraz izan beharko dira.
- 4.- Hiru orrialdeko luzera izan beharko du (1.200 hitz inguru). Lanak eskuz nahiz ordenagailuz onartuko dira.
- 5.- Gaia Aretxabaletakin lotutakoa izan beharko da.
- 6.- Lanak banaka nahiz taldeka entregatu ahal izango dira.
- 7.- Aurkezteko epea: 1999ko otsailaren 12a, Aretxagazetako lokalera ekarri beharko dira (Durana, 11).
- 8.- Irabazleen izenak 1999ko otsailaren 25eko alean argitaratuko dira.
- 9.- Sariak:  
Lehena: 20.000 pta.  
Bigarrena: 10.000 pta.
- 10.- Lanak sobre itxi baten barruan entregatu beharko dira, kanpoko aldean lanaren izenburua, eta gaitzizena adieraziko da.
- 11.- Gaiaren originaltasuna, euskera, datu bilketa... baloratuko dira.
- 12.- Erreportaiak Aretxagazetaren esku geratuko dira eta Aretxagazetak nahi duenean argitaratu ahal izango ditu hala iritziz gero, beti egilearen izenarekin sinatuta.
- 13.- Epaimahaiak lehiaketa sari barik utz dezake eskatutako maila lortzen ez bada.

**Idazteko zaleasuna baduzu,  
har ezatu parte beldur barik!**

## Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 79 64 61
• Kultur-Etxea	943 79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

## Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11


## Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 77 10 43
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00

## Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA





Aurtengo eskaparate lehiaketa Iriarte dendak irabazi du eta Arantxa Iriarte aritu da berori txukuntzen. Horretarako sekreturik ez digu kontatu, baina mimo handiz zaintzen du dendako eskaparatea. Bere iritziz hau dendako aurpegia da eta bezeroentzako lehenengo imagina.

• Lehen aldiz irabazi duzue eskaparate lehiaketako saria?

Lehenengo saria bai, baina aurretik bigarren bat eta hirugarren bat ere jasota ditugu.

• Urtero parte hartu izan duzue lehiaketan?

## “Eskaparatea apaintzeko imaginazioa eta gustua behar da”

Bai, urtero urtero.

• Nola hartu zenuten berria?

Sorpresaz. Sariak beranduago banatu zituzten eta jadanik emanda egongo zirela pentsatzen genuen.

• Arantxa, ideiak nondik hartzen dituzu?

Hiruburuetak eskaparateetatik, aldizkarietatik... Eskaparatismo ikastaro batzuk ere eginak ditut.

• Zer behar da eskaparate bat apaintzeko?

Imaginazioa, gustua...

• Noiztik dago Iriarte dendak?

1960. urte ingurutik.

• Hasieratik zaudete bertan lanean?

Aita jostuna zen eta amak egiten zituen dendari lanak. Gero gure ama hil zenean geuk hasi behar izan genuen bertan lanean.

• Urtarrileko aldapa igartzen da?

Urtarrilean baino gehiago otsailean.

• Egin dizuten azken operaria?

Nordiko bat eta liburu bat.

• Dendari lanak zer du ona?

Mota guztietako jendea ezagutzea. Askotan hau kontsulta bihurtzen da.

• Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Mendian ibiltzea, eskulanak egitea

eta irakurtzea.

• Eta eskulanetan zer moduz?

Daukagun irakaslearekin oso ondo, gauza zoragarriak egiten ditugu.

• Eta zein mendi duzu gustokoen?

Aizkorriko mendikatea, Anboto... hemen inguruan oso mendi politak ditugu eta Pirineotara ere joan izan naiz.

• Igo duzun mendi altuena?

Perdido eta Hiru Erregeen Mahaia.

• Aktore gustoko bat?

Anthony Hopkins.

• Euroa nola ikusten duzu?

Positiboa izango dela uste dut. Urrun samar ikusten dut oraindik, baina joango gara poliki-poliki ohitzen.

• Nolakoa da zure izakera?

Oso organizatua naizela esango nuke.

• Zer eskatzen diozu urte berriari?

Osasuna eta maitasuna.

• Ile luzea ala motza gurago?

Luzea, baina nik oso ile kaskarra daukat eta motza eramaten dut, komodoagoa da.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Aretxagazetan irteteak adibidez, nahiago dut ezkutuan egotea.

• Kirol gustokoa?

Mendia.

## KOMIKIA

### BALITXAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arrotabe

Aretxagazeta

# Bolsa Garantizado Aurrezkoa



**Emakumea piscis da. Gizona, tauro.**

Gizonak bere aurrezkien errentagarritasuna bilatzen du.  
Emakumeak, segurtasuna.

Euskadiko Kutxaren Bolsa Garantizado Aurrezkoa.  
Bientzat onena.

Erreforma fiskal berria indarrean sartuko dela eta, Euskadiko Kutxak aurrezki-sistemak egokitu ditu erreforma honen onurak ahalik eta gehien aprobetxa ditzazun.

Aukera berri horien aurrean, zure aurrezkiak arriskatu gabe errentagarritasuna hobetu nahi baduzu, Euskadiko Kutxak Bolsa Garantizado Aurrezkoa eskaintzen dizu. Errentagarritasunaren eta segurtasunaren arteko oreka ideala.

## **Bolsa Garantizado Aurrezkoa**

Erreformari egokituta dagoen Aurrezki Inbertsioko sistema honek Burtsaren bilakaeraren araberako etekina eskuratzea ahalbidetzen dizu, baina zure kapitaleko pezeta bat ere arriskatu gabe. Zure inbertsioa beti babestuta egon dadin.



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

**Erantzun  
zuzena**

# ETXE MOBEL

MUEBLES

ALZARIAK

**LOGELETAN  
maisua**

**Zapatu  
arratsaldeetan  
zabalik!!**



**Eta orain  
2. SOLAIRUA**

**Saloi eta sofa  
erakusketa**



**Etxe Mobil, Deba Garai eta Behean zehar logela, sofa, saloi eta osagarriak  
errezago topatzeko merkatal zentrua. 48 urteko esperientzia.  
Bertako profesionalek zuzendua. BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxes: 79 41 82

**ARRASATE**